

## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015**

### **HABE**

1. Udal erakundeen menpeko euskalteei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako.
2. Euskalteei pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako.
3. Euskal Etxeetako euskalteei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako.
4. Euskalteei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan euskara ikasi duten ikasleentzako laguntzak, euskara-mailak egiaztatzeko HABEren azterketak gaindituz gero.

1.- Izenburua

**Udal erakundeen menpeko euskaltegiei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako**

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko abuztuaren 27koa, HABEren zuzendari nagusiarena, udalen edo udal-erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei 2015/2016 ikasturteko dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen dituena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

179/2003 Dekretuak ezarria dauka HABEk laguntza emango duela, bere aurrekontu-bitartekoen muga barruan, euskaltegiak finantzatzeko, helduak alfabetatzen eta euskalduntzen lan egiteagatik. Deialdi honek, udal euskaltegiek 2015/16 ikasturtean emandako ikastaroen finantzaziorako laguntzak arautzen ditu.

Helburuak: - 39 euskaltegiri diruz lagundu  
- 288 irakasle eta 36,1 administrariren pertsonal-kostua finantzatu  
- 9.800 ikasleren eskolaketa sustatu

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

39 euskaltegi

301 irakasle eta 36,1 administrariren lan-postu, horien bitartez 9.927 ikasleri erantzunez, 180.000 talde-ordu eta 2.100.000 ikasle-ordu ematea espero direlarik.

1.- Izenburua

**Euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako**

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko abuztuaren 27koa, HABEren zuzendari nagusiarena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei, 2015/2016 ikasturteko euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

179/2003 Dekretuak ezarria dauka HABEk laguntza emango duela, bere aurrekontu-bitartekoen muga barruan, euskaltegiak finantzatzeko, helduak alfabetatzen eta euskalduntzen lan egiteagatik. Deialdi honek, euskaltegi pribatuek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek 2015/16 ikasturtean emandako ikastaroen finantzaziorako laguntzak arautzen ditu.

Helburuak: - 58 euskaltegi eta 6 autoikaskuntzarako zentrori diruz lagundu  
- 25.000 ikasleren eskolaketa sustatu

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

58 euskaltegi eta 6 autoikaskuntzarako zentro

420.200 talde-ordu eta 320.000 autoikaskuntzako ikasle-ordu inguru onartu dira dagozkien dirulaguntzak esleituz, horrela 27.711 ikasle atendituko delarik.

1.- Izenburua

**Euskal Etxeetako euskaltegiei laguntzak, helduei ematen dizkieten euskara-ikastaroen finantzaziorako**

2.- Araua

EBAZPENA, 2015ko abuztuaren 27koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2015eko urria eta 2016ko iraila bitarteko euskara-ikastaroengatik, Euskal Etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

179/2003 Dekretuak ezarria dauka HABEk laguntza emango duela, bere aurrekontu-bitartekoen muga barruan, euskaltegiak finantzatzeko, helduak alfabetatzen eta euskalduntzen lan egiteagatik. Deialdi honek, Euskal Etxeetako euskaltegiek 2015/16 ikasturtean emandako ikastaroen finantzaziorako laguntzak arautzen ditu.

Helburuak: - 3 Federazio eta 27 Euskal Etxeri diruz lagundu  
- 2.100 ikasleren eskolaketa sustatu

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

3 Federazio eta 27 Euskal Etxe

20.952 talde-ordu onartu dira dagozkien dirulaguntzak esleituz, horrela 2.100 ikasle inguru atendituko delarik

1.- Izenburua

**Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan euskara ikasi duten ikasleentzako laguntzak, euskara-mailak egiaztatzeko HABEren azterketak gaindituz gero**

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 28koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2014/15 ikasturtean HABEren euskara-mailak gainditu dituzten ikasleei emango zaizkien dirulaguntzen baldintzak arautu eta horien aitortza egiten duena eta horien baliokideak egiaztatu dituzten ikasleentzako dirulaguntza deialdia egiten duena.

**3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak**

179/2003 Dekretuak dio HABEk ezar ditzakeela, osagarri gisa eta bere aurrekontu-bitarteko muga barruan, ikasleei zuzendutako dirulaguntzak, horien emaitza akademikoen baitan. Deialdi honek, 2014/15 ikasturtean zehar euskararen irakaskuntzarako kurrikuluaren mailaren bat, edo baliokidea, gainditu duten ikasleei dirulaguntzak arautzen ditu.

Helburuak: 5.000 ikasleri diruz lagundu

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiari erantzunez, 3.246 eskari jaso ziren, eta horietatik 57 ez ziren onartuak izan, ezartzen ziren baldintzak betetzen ez zituztelako. Horrela, onartutako 3.189 eskatzaileen artean 998.452,23 euro banatu ziren.